




**GIZARTE ETA  
KOMUNIKAZIO  
ZIENTZIETAN  
BIBLIOGRAFIA ETA  
AIPUAK TXERTATZEKO  
MODUARI BURUZKO  
GIDALIBURUA  
GUÍA PARA LA INSERCIÓN  
DE CITAS Y EL MANEJO  
DE BIBLIOGRAFÍA EN  
CIENCIAS SOCIALES Y DE  
LA COMUNICACIÓN**

**Jone Martínez Palacios  
Matxalen Legarreta Iza**

[www.ehu.eus/gkz-csc](http://www.ehu.eus/gkz-csc)





**GIZARTE ETA  
KOMUNIKAZIO  
ZIENTZIETAN  
BIBLIOGRAFIA ETA  
AIPUAK TXERTATZEKO  
MODUARI BURUZKO  
GIDALIBURUA**

# AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera</b>	5. orria
<b>2. Nola aipatzen dira iturriak lanetan, memorietan eta saiakeretan Gizarte eta Komunikazio Zientzien arloan?</b>	6. orria
<b>2.1. Testuaren barruko erreferentziak</b>	8. orria
<b>2.2. Testuaren amaierako erreferentziak</b>	14. orria
<b>3. Bibliografia gestoreak</b>	19. orria
<b>4. Plagioa</b>	21. orria
<b>5. Gidaliburu hau egiteko erabilitako erreferentziak</b>	25. orria
<b>Eranskina: Originaltasun Konpromisoa</b>	26. orria

# 1. SARRERA

Ikerketaren arloan, ezinbestekoa da bibliografia zuzen ematea, eta testuan aipuen kodeak behar bezala aplikatzen jakitea.

Bibliografiaren bidez, ikerketa bat egiten edo dokumentu bat idazten duenak lanean erabili dituen informazio iturriak erakusten ditu. Erreferentziak osorik aipatzea, lana eskuratu nahi duenak behar duen informazio guztia sartuta, zintzotasun akademikoko ariketa da (inspirazioa onartzen den neurrian), jakintza zientifikoan aurrera egiteko aukera ematen duena.

Testuaren gorputzeko aipuen bidez, idazleak aditzera ematen du beste ikertzaile batzuen lanek inspiratu, edo eragina izan dutela harengan. Hala, ariketa horri esker, **irakurleak uler dezake nola eraiki den testua eta zer ideia argudiatu eta azaldu diren.**

Sarreraz gainera, gidaliburu hau hiru atal handitan dago banatuta. Lehenengoan, **aipuen eta bibliografia erreferentzien erabilerari** lotutako argibide nagusiak jasotzen dira, zeinak UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasleek erabil baititzakete, graduako lanak egiteko unean. Bigarrenengoan, **bibliografia gestoreak** hautatzeko eta erabiltzeko informazio erabilgarria ematen da. Hirugarrenean, ohartarazpen batzuk biltzen dira **plagioari** buruz. Eranskinak, ikasleek Gradu Amaierako Lanak egiten bete beharreko originaltasun adierazpena jasotzen du.

Gidaliburuaren helburua da sakabanututa egon ohi den informazioa dokumentu bakarrean biltzea, laburbilduta eta bateratuta. Hortaz, informazioa biltzeaz gainera, gidaliburu honek tresna erabilgarria izan nahi du UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasleentzat<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Gidaliburu hau egiteko, ezinbestekoak izan dira Igor Ahedo Gurrutzagaren hasierako bultzada, eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko dekanotzak eskuzabaltasunez emandako laguntza. Testuaren egileek eskerrak eman nahi dizkie Fakultateko Kazetaritzako, Ikus-entzunezko Komunikazioko eta Publizitatea eta Harreman Publikoko graduako koordinatzaileei egindako iradokizun eta proposamengatik. Eskerrik asko Irene García Urteari, Vanesa Fernández Guerrari eta Carmen Peñafiel Saizi. Era berean, gidaliburu hau hobetzeko Milagros Ronco irakasleak egindako gomendioak eskertzen ditugu.

## 2. NOLA AIPATZEN DIRA ITURRIAK LANETAN, MEMORIETAN ETA SAIAKERETAN GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEKIN ARLOAN?

Lan askok azaltzen dituzte bibliografia eta testuaren inspirazio iturriak zuzen aipatzeko moduak<sup>2</sup>. Era berean, arauen sistema edo multzo harmonizatu asko daude. **Arauen multzo harmonizatu bakoitzari sistema esaten zaio.** Gizarte zientzien eta komunikazioaren arloan, Harvard sistema erabiltzeko joera da nagusi.

Sistema horren barruan, hainbat estilo garatu dira. Gidaliburu honetan American Psychological Associationen eredu hartuko dugu oinarri, APA estilo gisa ezagutzen dena (seigarren argitalpena). Hori izango da aipamenak egiteko modu nagusia **UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean emandako graduatan egindako lanetarako, hau da:** Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoak, Soziologia, Kazetaritza, Ikus-entzunezko Komunikazioa, eta Publizitatea eta Harreman Publikoak<sup>3</sup>.

Esan behar da, halere, erabili bada ere, aipu sistema hau ez dela dagoen bakarra; hortaz, gerta daiteke UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasleek beren ibilbide akademikoan, ikerketetan edo lanean bestelako eskakizun batzuk bete behar izatea. Horregatik, **UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko lanen esparrutik kanpo testu bat idazteko unean, gomendatzen dugu bibliografia aipuen arau espezifikoak irakurtzea eta aipuak emateko modua arau horietara egokitzea.** Esate baterako, nahiko ohikoa izaten da ikerketa aldizkari batek bere arauak betetzeko eskatzea ikerketa artikulua bat idazteko proposatzen dionari. Horrelakoetan, ikasleak graduatan egindako lanen batean oinarrituta artikulua proposatu nahi badiu aldizkari bati, arreta handiz zaindu beharko ditu artikulua jasoko duen aldizkariaren eskakizunak, eta eskatutako irizpideak bete beharko ditu. Informazio hori, eskuarki, "egileentzako arauak" atalean topatuko du.

Jarraian, zehaztasunez azalduko dugu Harvard sistema, Antonio Berthier-en lanean oinarrituz (2005) eta aipu sistema horren hainbat adibide emango ditugu. Horrez gain, oinarritzko sistema horri genero ikuspegia gehitu diogu. Hala, emakumeek zientziari egindako ekarpenak ikustarazteko eta omisio edo maskulino generikoaren erabileragatiko hizkuntza sexistaren erabilera saihesteko, hainbat egokitzapen proposatzen ditugu, jarraian zehaztuko ditugunak.

<sup>2</sup> Gemma Muñoz-Alonso Lópezek horien bilduma egokia egiten du "Tendencias actuales de citación en los trabajos de investigación filosófica" (2006: 104-105) liburuan.

<sup>3</sup> Gidaliburu hau APAk garatutako estiloan oinarritzen bada ere, garrantzitsua da aipatzea ikasleentzako erabilgarritzat jo diren aldaketa txiki batzuk sartu direla, bereziki dokumentu elektronikoei dagokienez. Hori alde batera utzita, estilo horren barruan aldi behin izaten diren aldaketak direla eta, gerta daiteke gidali buru honetan emandako jarraibideak guztiz bat ez etortzea indarrean dauden APA jarraibideekin.

Harvard aipu sistemari buruzko informazioa bi ataletan banatu dugu. Lehenengoak **testuaren barruko erreferentziak**; hots, **aipuak** biltzeko modua azaltzen du, eta bigarrenagoak, berriz, **testuaren amaieran erreferentziak** biltzeko modua.

**Aipuen** helburua hau da: "testuan aipatzen den lanaren argitalpen data eta egilearen datu batzuk ematea" (Piurako Unibertsitateko Liburutegi Nagusiko Prozesu Teknikoen Arloa, 2011:2).

**Erreferentzien zerrenda**<sup>4</sup> berriz, hau da: "erabilitako erreferentzia guztien zerrenda da, dokumentuaren azkenengo atalean doana. Zerrenda honetan datu gehigarriak ematen dira dokumentazio iturri bakoitza identifikatu ahal izateko" (Valdés, García, Lorandi, Galván & Vargas 2010, in Piurako Unibertsitateko Liburutegi Nagusiko Prozesu Teknikoen Arloa, 2011:2).

---

<sup>4</sup> Maiz nahasten dira "erreferentzien zerrenda" eta "bibliografia". Lehenengoan, soil-soilik aipatzen dira lanaren barruan aipatutako lanak; bigarrenengoan, ordea, gaia sakonago aztertzeko gomendagarriak diren beste lan batzuk aipa daitezke.

## 2.1 TESTUAREN BARRUKO ERREFERENTZIAK: AIPUAK

Testuaren barruan bibliografia erreferentziak jartzeko unean, aintzat hartu behar dira hainbat alderdi:

- Egiletzaren ezaugarriak: banakakoa edo taldekoa, aipu berean erreferentzia egile bakar bati edo gehiagori egiten zaion, beste egile batek aipatutako egilearen erreferentzia...
- Aipuaren ezaugarriak: hitzez hitzeko aipua, erreferentzia zuzena edo zeharkakoa, diagrama edo ilustrazioa.
- Beste alderdi batzuk: orrialde kopurua, onartutako laburdurak.

Jarraian, testuaren barruan bibliografia erreferentziak jartzeko modua azaltzen da, alderdi hauek oinarri hartuta:

### 2.1.1 Testuaren barruko erreferentziak, egiletzaren ezaugarrien arabera

#### **Egileen erreferentziak**

Aipatutako obra baten egile gisa identifikatu behar da horren edukiaren arduradun den edo diren erakundea(k) edo pertsona(k). Aipatutako obraren egilea anonimoa denean, erreferentziaren barruan horrela adierazi beharko da.

##### **Adibidea:**

Eromenaren gorakada XVIII. mendean ezezaguna izan zen (Foucault, 2002).

#### **Urte berean argitaratutako pertsona beraren obrei buruzko erreferentziak**

Urte berean argitaratutako egile beraren obrak erabiltzen direnean, alfabetikoki ordenatuko dira, eta haien arteko bereizketa egiteko, letra xehe bat jarriko da urtearen atzean.

##### **Adibidea:**

Egilearen lanetatik ondoriozta daiteke poesiak ezin duela onurarik jaso emozio mingarrietatik (Kierkegaard, 1992a).

Gainera, pentsalariak planteatzen du idazteko uneak lasaitasun eta baretasun une bat izan behar duela (Kierkegaard, 1992b).

#### **Bi egileren obra baten erreferentzia**

Bi egileren artean idatzitako obra bat erabiltzen denean, erreferentzian bien abizenak jarriko dira, "eta" batez bereizita. Arau hori aplikatuko da testuaren barruko erreferentzia zuzena nahiz zeharkakoa denean.



### **1. adibidea:**

"El arte del cambio" lanean (Watzlawick eta Nardone, 2000), ideia hau sakontasun gehiagoz garatzen da.

### **2. adibidea:**

Objektuak kontsumitzaileen auto-kontzeptuarekin erlazionatzen dira, nortasun pertsonal eta sozialaren ikur material garrantzitsu gisa funtzionatzen dutelako (Dittmar eta Beattie, 1998).

## **Hiru eta bost egile arteko obra baten erreferentzia**

Hiru eta bost egile arteko obrak direnean, lehenengo aipamenean egile guztien abizenak emango dira. Gero, lehenengoa bakarrik aipatuko da, eta segidan et al gehituko da, atzean puntua jarrita (et al.).

### **Adibidea:**

Zabaletak, Xamardok, Gutiérrezek, Urrutiak eta Fernándezek (2010) hainbat saiakuntzetan agerian geratu izan dela ziurtatu dute (...).

Zabaleta et al.ek (2010) adierazi dute garrantzitsua dela (...).

## **Sei egile edo gehiagoren obra baten erreferentzia**

Sei egile edo gehiagoren obren kasuan, abizenaren ondoren "eta al." laburdura jarriko da, parentesi barruan nahiz kanpoan jarrita.

### **Adibidea:**

Hedabideek finantzatzeko modua bilatzen jarraitzen dute, 2008ko finantza krisiaren aurreko testuinguruaren produkzio maila berari eutsi ahal izateko (Zabaleta et al., 2015: 131- 155).

## **Bi egile edo gehiago aipatzea erreferentzia beraren barruan**

Erreferentzia beraren barruan egile bat baino gehiago erabiltzen dugunean, egile bakoitza eta haren lana puntu eta komaz bereiziko ditugu. Egileak erreferentziatik kanpo zerrendatzen badira (aipamen zuzena), parentesi artean jarriko dugu lanaren argitaratze urtea.

### **1. adibidea:**

Problematika horri lotutako egile batzuek (Kuhn, 1971; Popper, 1972; Tarski, 1956; Young, 2000) aurkako jarrerak dituzte.

### **2. adibidea:**

Kuhn (1971), Popper (1972) eta Tarski (1956) egileek zientziaren arazoa planteatzen dute, eta bakoitzak ondorio desberdinak ateratzen ditu.

## **Egile batek aipatutako beste egile baten obraren erreferentzia**

Beste egile batzuek aipatutako egileen erreferentziak erabiltzen ditugunean, "hemen aipatuta" hitzak eta bi puntu jarriko ditugu ideia ematen duen jatorrizko

lanaren egilearen abizen eta dataren eta informazioa eskuratu dugun iturriaren egilearen abizen eta dataren artean. Arau hori aplikatzen da bai zuzeneko bai zeharkako erreferentzietan. Behean emandako adibidean ulertzen dugu ideia ez dela Paul Watzlawick-ena, Henry Lennard eta Arnold Berstein-ena baizik. Oстера, lehenengo egilea irakurtzean izan dugu ideia horren berri. Hark eraman gaitu beste bi egilerengana eta, beraz, horrela, pentsamendu batera iristeko egin dugun ibilbidea aitortzen dugu.

**Adibidea:**

Sistemaren izaera sekuentziala interakzioaren ikuspegitik begiratzen dugunean agertzen zaigu (Lennard eta Berstein, 1960; hemen aipatuta: Watzlawick et al., 2002).

**Egilerik gabeko kazetaritza artikulua baten erreferentzia**

Egileren baten sinadurarik ez daraman kazetaritza artikulua erabiltzen dugunean, egunkariaren izena erabiliko dugu egilearen ordez.

**Adibidea:**

Azken hamar urteetan langile klasearen bizi kalitatea pobretu dena baino astiroago igo dira soldadak (El Guardián, 2004).

**2.1.2 Testuaren barruko erreferentziak, aipuaren ezaugarrien arabera**

**Hitzez hitzeko aipuak**

Hitzez hitzeko aipu ororekin batera, dagokion erreferentzia jarri beharko da amaieran eta parentesi artean. Hiru lerro edo gutxiagoko aipua denean, paragrafoaren barruan txertatuko da. Aipuak lau lerro edo gehiagoko luzera duenean, bi puntu jarri, eta behean idatziko da, letra tamaina eta marjina txikiagorekin. Kasu horretan, erreferentzia amaieran eta parentesi artean jarriko da, letra arruntez. Hitzez hitzeko aipuetan, orrialde zenbakia txertatu behar da.

**1. adibidea:**

Hori agerian geratzen da Comteren estatu teologikoari erreparatzen diogunean, hura ulertuta "la naturaleza íntima de los seres, hacia sus causas primeras finales" (Comte, 1981: 35) gaiari buruzko ikerketa gisa.

**2. adibidea:**

Bere horretan aitortzarik ez duen partaidetza da, eta, hala ere, horren bidez:

emakumeek ikasi eta erakutsi ahal izan dute familiaren, bizilagunen, herriaren eta oro har komunitatearen bizi baldintzak hobetzen laguntzeko gestore sozial onak direla. Emakumeek, askotan –baina ez beti–, familiaren eta komunitatearen eguneroko behar oinarritzoei lotutako kontu eta lanetan esku hartzen dute batez ere (Hernández, 2008: 14).


Horrenbestez, ondoriozta daiteke aipatzen ari garen partaidetzaren nozio murrizak lotura zuzena duela partaidetza ikusezin batekin.

## Diagramak, grafikoak, taulak eta ilustrazioak

Diagrama, grafiko, taula eta ilustrazioen aurretik izenburua jarriko dugu beltzez eta zenbakitua, non diagrama, grafiko, taula edo ilustrazioa den adieraziko baita. Era berean, diagrama, grafiko, taula edo ilustrazioaren barruan jatorrizko iturria aipatu beharko dugu. Horretarako, Iturria idatziko da, gero bi puntu, eta segidan erreferentzia. Hitzez hitzeko aipuetan bezala idatziko da erreferentzia. Diagrama, grafikoa, taula edo ilustrazioa guk geuk egin dugunean, iturria aipatzen dugunean, norberak egin dela idatziko dugu, Iturria eta bi punturen ondoren. Diagrama, grafikoa, taula edo ilustrazioa guk geuk egin dugunean baina beste iturri batetik hartutako datuak erabili ditugunean, Iturria eta bi punturen ondoren, guk egin dela aipatuko dugu, eta gero, Datuak eta bi puntu idatzi ondoren, datuen iturria adieraziko dugu.

### 1. adibidea:

#### 1. Diagrama. Ingurune teorikoaren eta enpirikoaren arteko erlazioa.



Iturria: Berthier, 2004: 14.

### 2. adibidea:


#### 2. Diagrama. Lan Karga Globalaren osagaiak



Iturria: norberak egin.

### 3. adibidea

#### 1. Grafikoa. Euskadiko Autonomia Erkidegoko biztanleria, lurralde historikoaren arabera (2015).



■ Araba/Álava ■ Bizkaia ■ Gipuzkoa

Iturria: norberak egin. Datuak: Eustat, 2015.

## **Egilearen erreferentzia zuzena testuaren barruan**

Egilearen izena idatziaren barruan naturaltasunez agertzen denean, erreferentzia segidan jarri beharko da parentesi artean argitaratze data sartuta, eta, hala behar izanez gero (hitzez hitzeko aipamena bada edo nabarmendu beharrezko ideia egileak lanaren orri jakin batzuetan garatzen badu), orrialde zenbakia jarriko dugu, bi punturen ondoren.

### **1. adibidea:**

Moyer-Gusé (2008) ereduaren arabera, fikziozko kontakizunen egitura narratiboak entzuleriak mezuaren asmo limurtzailea hautematea blokea dezake, eta erreaktantzia gutxitu.

### **2. adibidea:**

Carol Gilliganek (2013: 50-63) azpimarratzen duen moduan, maila enpirikoan, zaintzaren etika femeninoa da, bitariko egitura hierarkiko baten testuinguruan garatzen delako, hots, patriarkatuarena; haatik, genero desberdintasun gainean eraikita ez dagoen gizarte batean, zaintzaren etika unibertsala da, eta horren gainean herritartasun inklusiboaren eredia finkatzen da.

## **Egilearen zeharkako erreferentzia testuaren barruan**

Egile baten ideia hartzen denean haren izenik aipatu gabe, ideia azaldu baino lehen edo ondoren (idazketa estiloaren arabera), erreferentzia jarri behar da parentesi baten, abizena, koma, urtea, eta, hitzez hitzeko aipua bada, orrialde zenbakia, bi punturen ondoren.

### **1. adibidea:**

Beste pentsalari batzuek (Pateman, 1985) erdigunean jartzen dute generoaren araberako espazioaren banaketa, menderatze maskulinoa azaltzeko.

### **2. adibidea:**

Generoaren espazioaren araberako banaketak garrantzi handia du menderatze maskulinoaren azalpenean (Pateman, 1985).

### **2.1.3 Testuaren barruko erreferentziak: garrantzitsuak diren beste alderdi batzuk**

#### **Orrialde zenbakia**

Hitzez hitzeko aipuetan, beharrezkoa da hartutako informazioa zer orrialdetan dagoen adieraztea. Hortaz, argitaratze urtearen ondoren bi puntu jarri, eta segidan orrialde zenbakia jarriko da; aipuak orrialde bat baino gehiago izanez gero, zenbakiak gidoiz bereizita idatziko dira.

### **1. adibidea:**

“Pinel eta Tuke-ren kondairek balio mitiko batzuk transmititzen dituzte, XIX. mendeko psikiatriak natura probatzat hartu zituenak” (Foucault, 2002: 218).

### **2. adibidea:**

“Bizitza arrunta gurutzatutako mila hariz ehuntzen da; modu berean, pentsamenduak dinamikoa izan behar du, zenbaitetan nahasia, alderdi horrek, baina, hildako dogmen ziurtasunei eragiten die” (Maffesoli, 1993: 26-27).

## Onartutako laburtzapenak

Piurako Unibertsitateko Liburutegi Nagusiko Prozesu Teknikoen Arloak egindako dokumentuaren arabera (2001), Harvard sisteman honako laburtzapen hauek onartzen dira:

Laburdura euskaraz	Laburdura gaztelaniaz	Laburdura ingelesez	Esanahia euskaraz
erans.	apend.	app.	eranskina
zuz.	dir.	dir.	zuzendaria
ed.	ed.	edn.	edizioa
arg.	ed., eds.	ed., eds.	argitaratzailea(k)
et al.	et al.	et al.	eta beste batzuk
ibid. Ibidem	Ibid. Ibidem	Ibid. Ibidem	leku berean
d.g.	s.f.	n.d.	datarik gabe
zk.	no., nos.	no., nos.	zenbakia(k)
op. cit.	op. cit.	op. cit.	aipatutako lanean
or.	p., pp.	p., pp.	orrialdea (k)
prod.	prod.	prod.	produktorea
rev.	rev.	rev.	orraztailea
birrinp.	reimp.	rpt.	birrinprimatzailea
itzul.	trad.	trans.	itzultzailea
lib.	vol., vols.	vol., vols.	liburukia(k)
eta	y	&	eta

## 2.2 TESTUAREN AMAIERAKO ERREFERENTZIAK

Testuaren amaierako erreferentzia bibliografikoak alfabetikoki ordenatu behar dira. Erreferentziaren aipua egiteko modua aldatu egiten da aipatzen den obraren ezaugarrien arabera. Era honetan:

### **Egile bakarra duen liburua:**

Egilearen Abizena minuskulan, Izen osoa<sup>5</sup>, beharrezkoa izanez gero zehaztuko dugu testuaren argitaratzailea (argitz.) edo konpilatzailea (konp.) den, (argitalpen urtea). Izenburua eta azpiizenburua letra etzanean. Liburuki zenbakia, behar izanez gero, argitalpen zenbakia, lehenengoa ez bada, eta garrantzitsua bada, argitaratzailearen edo itzultzailearen Izena jar dezakegu. Argitaratu den hiria: Argitaletxea.

#### **1. adibidea:**

Taberner, José. (2009). *Soziologia eta hezkuntza : hezkuntza-sistema gizarte modernoetan: funtzioak, aldaketak eta gatazkak*. Bilbo: UPV/EHU.

#### **2. adibidea:**

Foucault, Michel (2002). *Jakitearen arkeologia*. Xabier Arregi (itzul.). Bilbo: Klasikoak.

### **Egile beraren liburuak:**

Bibliografian egile beraren liburu bat baino gehiago agertzen denean, behin bakarrik aipatzen dugu haren Abizena, minuskulan, Izena, eta hurrengo erreferentziak hiru azpiko marratxoren bidez ipintzen dira. Erreferentziak antzintasunaren arabera ordenatzen dira, zaharretik berrienera:

#### **Adibidea:**

Kierkegaard, Søren Aabye (2002). *El amor y la religión. Puntos de vista*. Mexiko: Grupo Editorial Tomo.

\_\_\_ (2005). *Tratado de la desesperación. La enfermedad mortal*. Buenos Aires: Quadrata.

### **Urte berean argitaratutako egile beraren liburuak:**

Egilearen abizena minuskulan, Izena, beharrezkoa izanez gero zehaztuko dugu testuaren argitaratzailea (argitz.) edo konpilatzailea (konp.) den, (argitalpen urtea eta identifikazio letra, ordena alfabetikoan) (lehenengo kasuko datu berberak). Aurreko kasuan bezala, bigarren erreferentziatik aurrera, hiru azpiko marratxoren bidez ipintzen ditugu egilearen erreferentziak.

#### **Adibidea:**

Kierkegaard, Søren Aabye (2002a). *El amor y la religión. Puntos de vista*. Mexiko: Grupo Editorial Tomo.

\_\_\_ (2002b). *Diario de un seductor*. México: Grupo Editorial Tomo.

<sup>5</sup> Zientzian emakumeen ekarpenak agerian uzteko helburuarekin proposatzen da izena bere osotasunean aipatzea eta ez soilik iniziala, Harvard sisteman ohikoa den moduan.

## **Bi edo hiru egile dituzten liburuak:**

Lehenengo egilearen Abizena minuskulan, Izena, eta bigarren egilearen Abizena minuskulan, Izena, (lehenengo kasuko datu berberak).

### **1. adibidea:**

Larrinaga, Ane eta Barcena, Iñaki (2004). *Politika eta gizartea : oinarrizko ikasgaiak*. Donostia: Udako Euskal Unibertsitatea.

### **2. adibidea:**

Watzlawick, Paul; Beavin, Janet eta Jackson, Don (2002). *Teoría de la comunicación humana*. Interacciones, patologías y paradojas. Hamabigarren edizioa. Bartzelona: Herder.

## **Hiru egile baino gehiago dituzten liburuak:**

Lehenengo egilearen Abizena minuskulan, Izena et al. (lehenengo kasuko datu berberak).

### **Adibidea:**

Watzlawick, Pauk et al. (1995). *La realidad inventada*. Bartzelona: Gedisa.

## **Liburuko kapitulua:**

Liburuko kapituluaren egilearen Abizena minuskulan, Izena (liburuaren argitalpen urtea). "Kapituluaren izenburua komatxo artean", liburuaren egilearen Izena eta Abizena liburuaren izenburua letra etzanean. Hiria: Argitaletxea. (orrialde zenbakiak) [Liburuaren aipua egiteko, kontuan hartu liburu baten aipua argibideak].

### **1. adibidea:**

Oter, Jorge (2010). "Zinea hurbiletik: Escartín, Iriarte, Lacuesta eta Siminiani", Vanesa Fernández eta Miren Gabantxo (konp.) *Lurraldea eta mugaldea*. *Esperientzia dokumental garaikideak*. Bilbo: UPV/EHU. (33-40).

### **2. adibidea:**

Dittmar, Helga eta Beattie, Jane (1998). "Impulsive and Excessive Buying Behaviour", Peter Taylor-Gooby (ed.) *Choice and public policy. The limits to welfare markets*. Londres: Macmillan. (123-144).

## **Egile anonimoak edo kolektiboak dituzten lanak:**

Argitalpenaz arduratu den erakundea edo kolektiboa (lehenengo kasuko datu berberak).

### **Adibidea:**

Emakunde (2015). *Sexismoa Europako 2014ko hauteskundeei egindako publizitate- eta informazio- tratameduan*. Gasteiz: Emakunde.

## **Aldizkariko artikulua:**

Egilearen Abizena minuskulan, Izena (aldizkariaren argitalpen urtea). "Artikuluaren izenburua komatxo artean". Aldizkariaren izena letra etzanean, liburuki zenbakia gehi aldizkariaren zenbakia parentesi artean, artikulua hartzen dituen orrialdeak.

### **1. adibidea:**

Aiestaran, Alazne (2010). "Euskarazko herri-prentsaren irakurleen profila aztergai". *Uztaro*, 74, 59-72.

### **2. adibidea:**

Moyer-Gusé, Emily (2008). "Toward a theory of entertainment persuasion: Explaining the persuasive effects of entertainment-education messages". *Communication Theory*, 18, 407-425.

## **Aldizkari elektronikoko artikulua:**

Egilearen edo argitaratzailearen Abizena edo dokumentuaren erakunde arduraduna minuskulan, Izena (sarean argitaratu den urtea –dokumentuan agertzen ez bada, orrialdea eguneratu den urtea, edo kontsultatua izan den eguna–). "Artikuluaren izenburua komatxo artean". Aldizkariaren izena letra etzanean [Hedabide mota], liburuki zenbakia gehi aldizkariaren zenbakia parentesi artean, artikulua hartzen dituen orrialdeak, eskuragarri hemen: helbide elektronikoa [Kontsulta eguna: xxxx/xx/xx].

### **Adibidea:**

Arnold, Marcelo eta Osorio, Francisco (1998). "Introducción a los Conceptos Básicos de la Teoría General de Sistemas". *Cinta de Moebio* [On-line] 3, 40-49, eskuragarri hemen: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=10100306> [Kontsulta eguna: 2005/01/20].

## **Egunkariko artikulua:**

Egilearen Abizena minuskulan, Izena (argitalpen urtea). "Artikuluaren izenburua komatxo artean" Egunkariaren izena letra etzanean. Argitalpen eguna, saila eta orrialde zenbakia.

### **Adibidea:**

González, Arturo (2004). "La Revolución Mexicana inacabada" *El Guardián*. Azaroaren 23a. Politika saila: 15.

## **Tesiak eta mintzaldiak:**

Egilearen Abizena minuskulan, Izena (argitalpen urtea). Tesiaren edo mintzaldiaren izenburua letra etzanean. Dokumentu mota eta maila. Argitalpen hiria: gradu akademikoa ematen duen erakundea.

### **Adibidea:**

Lujanbio, Oihana (2016). *Hizkuntza-aldakortasuna euskaran. Nafarroa ipar-mendebaldeko bi udalerritan egindako azterketa*. Doktore tesia. Bilbo: UPV/EHU.



## Filmak:

Ekoizpen etxeko ekoizlearen Abizena minuskulan, Izena (Ekoizlea) eta zuzendariaren Abizena minuskulan, Izena (Zuzendaria) (Filmaren estreinaldi urtea). Filmaren izenburua letra etzanean [Filma]. Herrialdea: Film estudioa.

### Adibidea:

Bender, Lawrence (Ekoizlea) eta Tarantino, Quentin (Zuzendaria) (1994). *Pulp fiction* [Filma]. AEB: Miramax.

## YouTubeko bideoak:

YouTube ohikoa da erabiltzailearen izena aurkitzea bideoaren egilearen egiazko izenaren orde. Beraz, egiazko izena ez badakigu, erabiltzailearen izena aipatuko dugu. Egilearen edo erabiltzailearen Abizena minuskulan, Izena (argitalpen eguna). Bideoaren izenburua letra etzanean [bideo fitxategia], eskuragarri hemen: helbide elektronikoa osoa (Kontsulta eguna: xxxx/xx/xx).

### 1. adibidea:

Smith, Rick (2013/09/20). *Favre Moss!*. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: [https://www.youtube.com/watch?v=gOP\\_L6hBjn8](https://www.youtube.com/watch?v=gOP_L6hBjn8) (Kontsulta eguna: 2016/10/03).

### 2. adibidea:

Holleratgeorge (2007/05/27). *The flop of all flops*. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=8ukde193ivM> (Kontsulta eguna: 2016/10/03).

## Liburu elektronikoak, web orrialdeak eta webguneak (blogak, etab.):

Egilearen edo argitaratzailearen Abizena edo dokumentuaren erakunde arduraduna minuskulan, Izena (sarean argitaratu den urtea –dokumentuan agertzen ez bada, orrialdea eguneratu den urtea, edo kontsultatua izan den eguna–). “Liburu/orrialdearen izenburua komatxo artean”. Webgunearen izena letra etzanean [Hedabide mota], argitalpen lekua: editorea (halakorik balego), eskuragarri hemen: helbide elektronikoa osoa [Kontsulta eguna].

### 1. adibidea:

Morera, Miguel. (2013). “Slideshows: ¿Son realmente útiles y necesarios?”, *Asociación de Desarrolladores Web de España (ADWE)* [On-line], eskuragarri hemen: <http://www.adwe.es/disenio-web-2/slideshows-son-realmente-utiles-y-necesarios> [Kontsulta eguna: 2016/09/12].

### 2. adibidea:

Wikipedia (2016). *Doctrina de la neurona*, eskuragarri hemen: [http://es.wikipedia.org/wiki/Doctrina\\_de\\_la\\_neurona](http://es.wikipedia.org/wiki/Doctrina_de_la_neurona) [Kontsulta eguna: 2016/10/03].

## **Argitaratutako konferentziak:**

Hizlariaren Abizena (konferentzia ematen duen pertsona) minuskulan, Izena (argitalpen urtea). "Hitzaldiaren izenburua komatxo artean", konpilatzailearen edo argitaratzailearen Izena eta Abizena minuskulan, zehaztuta testuaren argitaratzailea (argitz.) edo konpilatzailea (konp.) den, edo konferentzia zikloaren erakunde arduraduna, hala badagokio. Liburuaren edo konferentzia zikloaren izenburua letra etzanean. Konferentzia zikloaren erakunde arduraduna, zikloaren datak, urtea barne, argitalpen hiria: Argitaletxea, konferentziak hartzen dituen orrialdeak.

### **Adibidea:**

Salces, Gorka (2015). "Euskarazko tokiko komunikabideak: identitate edo berri-emaile?", Rocío de las Muñecas, Maitane Junguitu eta Miren Manias (koord.) *Irrati-telebista autonomiko, tokiko eta komunitarioen atzerakada. Gertuko komunikazioa mehatxupean*. Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko IV Nazioarteko Kongresuaren Aktak, 2000ko azaroaren 28. Bilbo: UPV/EHU. (141-160).

## **Argitaratu ez den ikastaro edo konferentzia batean jasotako edukiak:**

Edukiak ematen dituen pertsonaren Abizena minuskulan, Izena (ikastaro/konferentziaren urtea). "Edukien izenburua komatxo artean", Ikastaroaren izena letra etzanean, Ikastaroa aurrez aurrekoa bada, ikastaro eguna eta lekua, eta on-line bada, eskuragarri hemen: helbide elektronikoa osoa [Kontsulta data].

### **1. adibidea:**

Pérez-Orozco, Amaia (2011). "Krisia sukaldetik ikusia: prekarietatea, lana eta desberdintasuna". *Getxoko Udalak antolatutako hitzaldi-eztabaida, Emakumeen lan eta ekonomia prekarietatea*. Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna konferentzia zikloaren barnean. Getxo, martxoaren 17a.

### **2. adibidea:**

Aguirre, Virginia (2016). "Experiencia de usuario y usabilidad para E-commerce", *El poder de Mr. Google IV: e-commerce, estrategias y herramientas para vender online*. UPV/EHU Uda Ikastaroak 2016, eskuragarri hemen: <https://www.uik.eus/es/el-poder-de-mr-google-iv-e-commerce-estrategias-y-herramientaspara-vender-online> [Kontsulta eguna: 2016/10/03].

## 3.3 BIBLIOGRAFIA GESTOREAK

Bibliografia gestoreak bibliografia erreferentzien datu baseak sortzea eta kudeatzea, bibliografiak egitea eta testu dokumentuetan aipuak modu automatikoan sartzea ahalbidetzen duten informatika programak dira. Datu base pertsonalen itxura dute; hortaz, erabiltzaile bakoitzak bere bibliografia datu baseak sortu, eguneratu eta mantendu ahalko ditu bere premien arabera. Hala, aukera eskaintzen dute bibliografia erreferentziak, aipuak eta oin oharrak automatikoki sortzeko, eguneratzeko eta antolatzeko, baita hainbat bibliografia estilotan sortzeko ere. Horretaz gain, hainbat erabiltzailearen artean erreferentziak esportatzeko eta inportatzeko aukera ematen dute.

Tresna horiek oso erraz eta modu intuitiboan erabiltzekoak dira; izan ere:

“Nabigatzailetik informazioa konpilatzeko bide ematen dute, oro har agiri bati lotutako metadatu guztiak arrastatzen uzten duen botoi bat txertatuz, elementu eta osagai hauek guztiak dituen erregistro bibliografiko xehe bat sortzeko: egilea, izenburua, iturria, argitalpenaren xehetasunak (liburukia, adibidez), aldizkari baten argitalpen zenbakia edo urtea, liburu baten edizio arloa, edukia ezaugarritzen duten gaiak edo etiketak, agiria eskuratzeko URL helbidea, eta edukiaren laburpena edo *abstracta*” (Universo Abierto. Blog de la biblioteca de Traducción y Documentación de la Universidad de Salamanca. [Kontsulta eguna: 2016/06/24]).

Hainbat bibliografia gestore daude: une honetan, Gizarte Zientzietan gehien erabiltzen direnak **Refworks**, **EndNote**, **Zotero** eta, berrikiago, **Mendeley** dira. Zer gestore erabiliko dugun erabakitzeke unean, garrantzitsua da sarbidea eta erabiltzeko erraztasuna aintzat hartzea. Zenbait gestore bibliografikok, adibidez, sarbide mugatua dute, beste batzuek ez dute beste gestore batzuetatik erreferentziak inportatzeko aukera ematen.

**UPV/EHUko Liburutegiak** Refworks eta Reference Manager 12rako sarbidea eskaintzen du. Refworks unibertsitateko kide guztiei zuzenduta dago eta PC-n eta Mac-en erabil daiteke. Reference Manager 12 irakasle-ikertzaileei dago zuzenduta, eta PC-n bakarrik erabil daiteke, horregatik ez dugu hari buruzko informazio gehiago sartu gidaliburu honetan.

### Refworks

Unibertsitateko kide guztiei zuzenduta.

Bibliografia erreferentziak eta erantsitako dokumentuak Refworks zerbitzarian bilduta geratzen dira, eta Internetarako sarbidea duen edozer ordenagailutik eskura ditzakegu.

PC-n eta Mac-en erabil daiteke.

- **Refworks-erako sarbidea.**
- **Refworks-en gidak eta tutorialak.**

UPV/EHUko Liburutegiak bibliografia gestoreak erabiltzen ikasteko ikastaroak eskaintzen ditu. Informazio gehiago nahi izanez gero, sartu **hemen**.

## Mendeley

Mendeley web eta mahaigaineko aplikazioa da, jabeduna eta doakoa. Bibliografia erreferentziak eta ikerketa dokumentuak kudeatzeko eta partekatzeko, datu berriak bilatzeko eta online lankidetzan aritzeko aukera ematen du. Mendeley programak Mendeley Desktop –PDFak eta erreferentziak gestionatzeko aplikazioa (Windows, Mac eta Linux-erako dago eskuragarri)– eta Mendeley Web –ikertzaileentzako online sare soziala– konbinatzen ditu. Hau da haren goiburua: Organize, share, Discover (antolatu, partekatu, deskubritu). Ondo funtzionatzen du iPad-en eta Android-en. Horretaz gain, **Write & Cite** (idatzi ahala aipatu) pluggina ere integra daiteke prozesatzailean (Word, Open Office, etab.), testuan aipuak sartzea errazteko eta haiek formateatzeko, amaierako bibliografia egin ahal izateko. Ondo sinkronizatzen da bai Libre Office-erekin bai Wordekin.

- **Mendeleyrako sarbidea.**
- **Mendeley eskuliburua 2015eko azaroa.**
- **Mendeley paso a paso: sesión básica, por Rosario Guiard-Abascal,** (Mendeley urratsez urrats: oinarritzko saioa) egilea: Rosario Guiard-Abascal, 2015eko apirila (Murtziako Unibertsitatea).
- **Bideoak eta tutorialak.** (ingelesez).
- **Mendeley Support Portal.**

## EndNote Web

EndNote Web online erreferentzia gestorea da. ISI Web of Knowledge (WOK) plataforman txertatuta dago, eta ikasle-ikertzaileei ikerlanak idazteko prozesuan laguntzeko diseinatuta dago.

- **EndNote-erako sarbidea.**
- **EndNote eskuliburua.**

## Zotero

Zotero bibliografia erreferentziak kudeatzeko software libreko programa da. **Firefox** nabigatzaileko hedapen librea da, eta edozer jatorriko ikerlanak nabigatzailetik bertatik biltzeko, administratzeko eta aipatzeko aukera ematen die erabiltzaileei. Datuak hainbat aipu, txosten eta bibliografia estilotan ustiatzea ahalbidetzen du. Horretaz gain, **Write & Cite** (idatzi ahala aipatu) pluggina ere integra daiteke prozesatzailean (Word, Open Office, etab.), testuan aipuak sartzea errazteko eta haiek formateatzeko, amaierako bibliografia egite aldera. Ondo sinkronizatzen da bai Libre Officerekin bai Wordekin.

- **Zotero deskargatu.**
- **Ejercicios básicos Zotero paso a paso.** (Zoterorekin lana egiteko oinarritzko ariketak) Rosario Guiard (Murtziako Unibertsitatea).
- **Ejercicios avanzados Zotero paso a paso.** (Zoterorekin lan egiteko ariketa aurreratuak) Rosario Guiard (Murtziako Unibertsitatea).
- **Zotero: Gida azkarra gaztelaniaz.**
- **Tutoriala gaztelaniaz** egilea: Julio Alonso (Salamanca Unibertsitatea).
- **Tutorialak** (ingelesez).

## 4. PLAGIOA<sup>6</sup>

Plagioa legeak zigorturiko praktika da. Ezinbestekoa da "plagio" hitzak zer esan nahi duen ezagutzea eta hura nola ekidin jakitea, ezjakintasunagatik edo informazio faltagatik plagioa egitea saihesteko. Gradu lan batean **plagioa egin dela antzematen** bada, automatikoki **zero kalifikazioa** jasoko du lan horrek.

UPV/EHUren Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Gradu Amaierako Lanaren originaltasun adierazpenean (eranskinean dago) jasota dagoen bezala, Euskal Hiztegiaren arabera, plagiitzea zera da: **besterenak diren obren kopia edo antzeratzea, norberak eginak balira bezala azaltzeko egina.**

Era berean, Moratók eginiko (2012: 361-368) Tripathi eta Kumar-en testuaren egokitzapenari jarraiki, honako ekintza hauek plagiotez jotzen dira:

4. taula. Plagiotzat jotako ekintzen sailkapena:	
1	Beste norbaiten lana entregatzea norberarena balitz bezala.
2	Pasarte osoak erreproduzitzea, inolako aldaketarik egin gabe.
3	Zatiak erreproduzitzea, hitz jakin batzuk aldatuta.
4	Hainbat iturri konbinatzea bat bera ere aipatu gabe.
5	Amaierako lana osatzen duten hainbat iturri birformulatzea.
6	Norberaren aurreko lanaren maileguak, originaltasun betekizunak urratzen dituztenak.
7	Egilea aipatzen da, baina ez da iturria lokalizatu ahal izateko behar adina datu ematen.
8	Akatsen ondorioz, ezin dira lokalizatu aipaturiko iturriak.
9	Egilea aipatzen da baina ez dira hitzez hitzezko aipuak komatxo artean jartzen, eta, hortaz, beste norbaiten interpretazioa gurea balitz bezala agertzen da.
10	Aipuak eta erreferentziak zuzenak dira, baina artikulua zatirik handiena osatzen dute.
11	Egile baten sormen hizkera erabiltzea haren berariazko aintzatespena behar bezala jaso gabe.
12	Beste norbaiten ideia gurea balitz bezala pasaraztea.
13	Beste egile baten arrazoibidea jarraitzea, jatorrizko artikulua ordena antzekoan.
14	Beste azterlan batzuetako datuak plagiitzea.

Iturria: Morató, 2012: 361-368.

<sup>6</sup> Atal hau idazteko honako iturria erabili da: Alacanteko Unibertsitateko Unibertsitate Liburutegia. "Aprende sobre el plagio". <http://biblioteca.ua.es/es/propiedad-intelectual/plagio/aprende-sobre-el-plagio-y-como-evitarlo.html#top> [Kontsulta eguna: 2016/07/27].

Halaber, honakoa ere gogorarazi beharra dago: "Testu inprimatuak ez ezik, beste bitarteko batzuk ere aipatu behar dira, bai ikusizkoak bai ahoskoak" (Morató 2012: 363).

## **Noiz ari gara plagioa egiten?**

Lan bat egiazko egilearena ez beste izen batekin zabaltzen, argitaratzen eta erreproduzitzen denean. Egilearen eskubide moralei eta ondarezko eskubideei erasotzen diegunean, egiletza usurpatzen eta haren interes ekonomikoak iruzurtzen baitira.

## **Zer lan plagia daitezke?**

Literaturako lanak, zientifikoak edo artistikoak; esaterako:

- Liburuak, liburuxkak, inprimakiak, idazkiak, txostenak, konferentziak...
- Letra duten edo ez duten musika konposizioak.
- Lan dramatikoak, musikalak, koreografiak eta, oro har, antzezlanak.
- Zinemako eta ikus-entzunezko lanak, multimedia lanak, argazkilaritzako lanak.
- Eskulturak, margolanak, marrazkiak eta gainerako lan plastikoak.
- Arkitekturako eta ingeniariartzako lanak.
- Ordenagailuko programak eta datu baseak.
- Industriako arteek sorturiko objektuei dagozkien marrazkien formak, zeinuak, modeloak patenteak, markak, goiburuak eta dibulgazio esaldiak.
- Eta jatorrizkoetatik eratorritako lanak; esaterako, itzulpenak, egokitzapenak, berrikusketak, laburpenak, musikako moldaketak.

## **Zergatik da delitua plagiatzea?**

• Jabetza Intelektualeko Legeak honako eskubide hauek aitortzen baitizkio egileari:

- Obraren egiletzaren aitortza egileari dagokion eskubide ukaezina eta besterenezina dena (14.3 art.).
- Ustiapen eskubide eskusiboa eta haren aldaerak [...] bereziki, erreproduzitzeko, banatzeko, publikoari komunikatzeko eta eraldatzeko eskubideak baliatzea; horiek guztiak ezin egingo dira egilearen baimenik gabe [...] (17. art.).
- Eskubide urratzailearen jarduera ez-zilegiak eragindako kalte material eta moralen kalte-ordaina galdatzeko egintza judizialak (138. art.).

• Eta Zigor Kodeko 270.1 artikulua plagioa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat jotzen du, "jabetza intelektualeko eskubideen titularren edo lagapen-hartzaileen baimenik gabe" egiten denean.

## **Noiz ez da plagioa?**

- Jatorrizko ideiak edo lanak adierazi edo aurkezten ditugunean.
- Jakintza publikoa zabaltzen edo erreproduzitzen dugunean.
- Jatorrizko ikerketa bateko emaitzak aurkezten ditugunean.

## **Nola saihets daiteke plagioa?**

### **Aipatuz**

Lanean hitzez hitz aipatzen badugu esaldi edo paragrafo bat, testua komatxo artean jarri behar da, letrakera etzanez edo beste letra mota batekin, eta hura nondik atera dugun aipatu behar dugu, bibliografia erreferentzia osoa jarrita.

Zer aipatu behar da?

- Datuak, zifrak, jakintza komunekoak ez diren estatistikak.
- Beste pertsona batzuek proposatu dituzten teoriak edo ideia espezifikoak.
- Jakintza publikokoa ez den edozer informazio espezifiko.

### **Parafraseatzen**

Beste pertsona baten ideiak azaltzen baditugu, baina gure hitzak edo berezko adierazteko modua erabiliz, ideia horiek hartu ditugun jatorrizko iturriaren bibliografia erreferentzia osoa jarri behar dugu.

Parafraseatzeko aholkuak:

- Jatorrizko testua arretaz irakurri, gako hitzak eta planteamendua laburbiltzen duten esaldiak aterata.
- Norberaren hitzetan esatea. Honakoa egin daiteke:
  - Hitz generikoak erabili.
  - Sinonimoak erabili.
  - Aktibotik pasibora aldatu, edo alderantziz.
  - Esaldiaren egitura aldatu.
  - Paragrafoak esalditara laburtu.
  - Testuaren zatiak aldatu.
- Idatzitako esaldiak jatorrizkoarekin alderatu, eta informazioa zehatza dela eta, nahi gabe, esaldi edo hitz berak erabili ez direla ziurtatu.

### **Iturriak:**

Lana egiteko kontsultaturiko bibliografia eta erabilitako besteren lanak (edo haien zatiak) aipatu behar dira, izan lan horiek idatzizkoak, entzunezkoak edo ikus-entzunezkoak, irudiak, argazkiak, eta abar.

## Zer tresna erabil daitezke plagioa antzemateko?

Plagioa antzemateko honako doako programa hauek erabil daitezke:

- **DOCODE LITE**: egunean hiru dokumentu aztertzeo aukera emango digu, haiek webgunean dauden beste batzuekin konparatuta.
- **Copyscape**: webgune baten online kopiak bilatzen ditu URLaren bitartez.
- **Plagium**: sartutako testuaren berdin-berdinak edo antzekoak diren dokumentuak bilatzen ditu.
- **PlagScan**: fitxategiak igo daitezke edo testua sartu zuzenean. Lehentasunren arabera antolaturiko emaitzak itzultzen ditu.
- **The Plagiarism Checker**: sartu dugun testua dagoen beste webgune batzuk erakusten ditu.
- **Dupli Checker**: sartutako testua webguneko dokumentuekin konparatzen du.
- **Plagiarisma**: Windows, Android, BlacBerry-rako.
- **ArticleCheker**: testua eta webguneak konparatzen ditu Google eta Yahoo-ko bilatzaileetan.
- **TinEye**: irudien alderantzizko bilaketa motorra.
- **Viper**: dokumentuak webguneko beste batzuekin eta berezko dokumentuekin konparatzea ahalbidetzen duen softwarea da.
- **Antiplagiarist**: dokumentuetan kopiaturiko testuen zatiak egiaztatzeko aukera ematen duen softwarea da.

## Zein da legedia aplikagarria ustezko plagio kasu baten aurrean?

Jabetza intelektuala:

- **Apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretua, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzekoa, arlo horretan indarrean dauden lege-xedapenak erregularizatu, argitu eta harmonizatzeko (1996ko apirilaren 22ko BOE).**

Zigor Kodea:

- **Azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, Zigor Kodea (270-272 artikulua).**

Zuzentzeko eskubidea:

- **Martxoaren 26ko 2/1984 Lege Organikoa, Zuzentzeko Eskubidea arautzekoa.**

## Zer egin dezaket norbaitek nire lana plagiatu duela antzematen badut?

Arauk honakoa dio: "Kontrakorik frogatu ezean, presuntzio egingo da egile dela [...] obran egileztat ageri dena"; hortaz, niri dagokit, eskubide moralen egile eta titular gisa, nire lanaren gaineko egiletza aitortzeko egokituz jotako ekintzak baliatzea (Jabetza Intelektualaren Legeko 6.1 eta 138. artikulua).

Obraren egileak ez badu ekintzarik abiarazten, egile dela joko da bere izenaren, sinaduraren edo identifikatzen duen zeinu baten bidez obran egileztat ageri dena.

Plagioa diru-irabazi asmoarekin egiten bada, eta hirugarren baten kalterako, Zigor Kodeko 270.1 artikuluko plagio delitutzat joko da, eta horren berri duen edozer pertsonak salatu ahalko du.



## 5. GIDALIBURU HAU EGITEKO ERABILITAKO ERREFERENTZIAK

Piurako Unibertsitateko Liburutegi Nagusiko Prozesu Teknikoen Arloa (2011). Guía para la elaboración de citas y referencias bibliográficas: Estilo Harvard. Piura: Piurako Unibertsitateko Liburutegi Nagusia.

Alacanteko Unibertsitateko Unibertsitate Liburutegia. "Aprende sobre el plagio". <http://biblioteca.ua.es/es/propiedad-intelectual/plagio/aprende-sobre-el-plagio-y-como-evitarlo.html#top> [Kontsulta eguna: 2016/07/27].

Murtziako Unibertsitateko Liburutegia. "Gestores bibliográficos". <http://www.um.es/web/biblioteca/contenido/biblioteca-digital/gestores-bibliograficos>. [Kontsulta eguna: 2016/06/24].

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Liburutegia. "Bibliografía gestoreak". <http://www.ehu.eus/es/web/biblioteca/bibliografia-gestoreak>. [Kontsulta eguna: 2016/06/24].

CDICT-Universidad Central (2005). Estilo Harvard para las Referencias Bibliográficas. Eskuragarri hemen: [https://www.intec.edu.do/downloads/pdf/biblioteca/004-biblioteca\\_harvard\\_estilo.pdf](https://www.intec.edu.do/downloads/pdf/biblioteca/004-biblioteca_harvard_estilo.pdf) [Kontsulta eguna: 2016/06/05].

Cordón-García, José A.; Martín-Rodero, Helena eta Alonso-Arévalo, Julio (2009). "Gestores de referencias de última generación: análisis comparativo de RefWorks, EndNote web y Zotero". *El profesional de la información*, 18(4), 445-454. Eskuragarri hemen: <http://www.elprofesionaldeinformacion.com/contenidos/2009/julio/14.pdf> [Kontsulta eguna: 2016/06/24].

Morató, Yolanda (2012). "Una reflexión necesaria sobre el plagio en el EEES". *Revista UPO INNOVA*, 1, 361-368.

Muñoz-Alonso, Gemma (2006). "Tendencias actuales de citación en los trabajos de investigación filosófica", *Investigación bibliotecológica*, 20 (41), 91-106. Eskuragarri hemen: [http://www.eticaacademica.unam.mx/Citacion\\_Harvard.pdf](http://www.eticaacademica.unam.mx/Citacion_Harvard.pdf) [Kontsulta eguna: 2016ko ekainak 5].

Universo Abierto. Blog de la biblioteca de Traducción y Documentación de la Universidad de Salamanca. "Comparación de gestores de referencias bibliográficas" <https://universoabierto.com/2016/02/13/comparacion-de-gestores-de-referencias-bibliograficas/> [Kontsulta eguna: 2016/06/24].

Valdés, Teresa de Jesús; García; Alfonso; Lorandi, Alberto, Galván, Ricardo eta Vargas, Alejandro (2010). Guía para la elaboración de la tesis de grado. Eskuragarri hemen: [www.uv.mx/veracruz/insting/files/2013/02/propuesta-de-tesis-final.doc](http://www.uv.mx/veracruz/insting/files/2013/02/propuesta-de-tesis-final.doc) [Kontsulta eguna: 2016/11/27].

# ERANSKINA: ORIGINALTASUN KONPROMISOA

Mesedez, irakurri jarraian agertzen den informazioa eta sinatu bukaeran.

1. Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, plagioa da "besterenak diren obren kopia edo imitazioa, norberak eginak balira bezala azaltzeko egiten dena."
2. Zehazkiago, plagiotzat hartzen dira honako ekintza hauek:

<b>4. Taula. Plagiotzat jotako ekintzen sailkapena:</b>	
<b>1</b>	Beste norbaiten lana entregatzea norberarena balitz bezala.
<b>2</b>	Pasarte osoak erreproduzitzea, inolako aldaketarik egin gabe.
<b>3</b>	Zatiak erreproduzitzea, hitz jakin batzuk aldatuta.
<b>4</b>	Hainbat iturri konbinatzea bat bera ere aipatu gabe.
<b>5</b>	Amaierako lana osatzen duten hainbat iturri birformulatzea.
<b>6</b>	Norberaren aurreko lanaren maileguak, originaltasun betekizunak urratzen dituztenak.
<b>7</b>	Egilea aipatzen da, baina ez da iturria lokalizatu ahal izateko behar adina datu ematen.
<b>8</b>	Akatsen ondorioz, ezin dira lokalizatu aipaturiko iturriak.
<b>9</b>	Egilea aipatzen da baina ez dira hitzez hitzezko aipuak komatxo artean jartzen, eta, hortaz, beste norbaiten interpretazioa gurea balitz bezala agertzen da.
<b>10</b>	Aipuak eta erreferentziak zuzenak dira, baina artikulua zatirik handiena osatzen dute.
<b>11</b>	Egile baten sormen hizkera erabiltzea haren berariazko aintzatespena behar bezala jaso gabe.
<b>12</b>	Beste norbaiten ideia gurea balitz bezala pasaraztea.
<b>13</b>	Beste egile baten arrazoibidea jarraitzea, jatorrizko artikulua ordena antzekoan.
<b>14</b>	Beste azterlan batzuetako datuak plagiatzea.

Moratoren egokitzapena<sup>7</sup>

3. "Testu inprimatuak ez ezik, beste bitarteko batzuk ere aipatu behar dira, bai ikusizkoak bai ahoskoak"<sup>8</sup>

4. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari buruzko arautegiko 2. artikuluaekin bat, "Gradu Amaierako Lana gauzatzeko, ikasle bakoitzak, banaka, proiektu, memoria edo azterlan orijinala egin behar du (...)"

5. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko GRADUAREN IZENA Gradu GRALaren irakaskuntza gidak beren beregi jasotzen du honako hau: "Erabat debekatuta dago testuen zatiak hitzez hitz idaztea (izan liburu etakoak, aldizkari zientifikoetako artikuluetakoak, tesietakoak, web orrietakoak, etab.), baldin eta ez bada behar bezala aipatzen testuan alde aurretik eta ez bada identifikatzen berau lortzen den iturria. Bestela, plagiotzat hartuko da eta lanak zero kalifikazioa izango du."

<sup>7</sup> Morató, Yolanda (2012). "Una reflexión necesaria sobre el plagio en el EEES". UPO INNOVA aldizkaria, I.bol.:361-368.

<sup>8</sup> Morató, op.cit., 2012, 363. or.

Nik, IZEN-ABIZENAK(e)k, NAN ZENBAKIA zenbakidunak, aurreko paragrafoetan jasotakoa irakurri eta ulertu dut.

Hori kontuan izanda, honako hau adierazten dut:

Nire Gradu Amaierako Lana, "IZENBURUA" izenburua duena eta ZUZENDARIAREN IZEN-ABIZENAK(e)k zuzenduta dagoena, originala da.

Eta behar den lekuan jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.

Leioa, 2017ko xxxxaren xxxxa



# GUÍA PARA LA INSERCIÓN DE CITAS Y EL MANEJO DE BIBLIOGRAFÍA EN CIENCIAS SOCIALES Y DE LA COMUNICACIÓN

# ÍNDICE

<b>1. Introducción</b>	pág. 31
<b>2. ¿Cómo citar las fuentes en trabajos, memorias y ensayos en Ciencias Sociales y de la Comunicación?</b>	pág. 32
<b>2.1. Referencias dentro del Texto</b>	pág. 34
<b>2.2. Referencias al final del texto</b>	pág. 40
<b>3. Gestores bibliográficos</b>	pág. 45
<b>4. Plagio</b>	pág. 47
<b>5. Referencias utilizadas para la elaboración de esta guía</b>	pág. 51
<b>Anexo: Documento de originalidad para trabajos fin de grado</b>	pág. 52

# 1. INTRODUCCIÓN

En el campo de la investigación es imprescindible la elaboración de una correcta bibliografía, así como saber aplicar los códigos de citación en el texto de forma adecuada.

A través de la bibliografía, quien investiga y redacta un documento muestra las fuentes de información que ha empleado a lo largo de su trabajo. Citarlas de forma completa, con toda la información necesaria para que quien lo desee pueda acceder a la obra, es un ejercicio de honestidad académica (en tanto que reconocimiento de inspiración) que hace avanzar el conocimiento científico.

Mediante la citación en el cuerpo del texto, quien escribe explica que su redacción ha sido inspirada o motivada por trabajos previos de otras/os investigadoras/es. Así, este ejercicio **permite entender a quien lee la forma en la que se ha construido el texto y las ideas argumentadas y expuestas en él.**

